



Ebazpena, 2018ko maiatzaren 14koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, 2018/2019 ikasturterako Berritzeguneetan hainbat lanpostu —zerbitzu-eginkizunen edo, hala behar balitz, behin-behineko esleipeneko erregimenean— betetzeko deialdia egiten da.

Berritzeguneak Prestakuntzan eta Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak dira, eta eremu edo/eta lurralde jakin batean Hezkuntzan Laguntzeko Zerbitzuak emateko sortu dira, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza berritze eta hobetze aldera.

Deialdi honen helburua da zentro hauetan hainbat lanpostu betetzea 2018/2019 ikasturterako, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak proposatuta.

Lanpostu hauek zerbitzu-eginkizuneko erregimenean beteko dira, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 54. artikuluan ezarritakoa betez; eta baita uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, 12. artikuluen 4. eta 5. paragrafoetan ezarritakoa ere. Figura hori funtzionarioei izango zaie aplikagarria.

Lan-kontratua duten langileei dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 83. artikuluan ezartzen duenez, lan-kontratudun langileak lekuz mugitu eta lanpostuak betetzerakoan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa izango da oinarri, eta, horrelakorik ezean, karrerako funtzionarioak lekuz mugitzeko eta lanpostuak betetzeko sistema hartuko da aintzakotzat.

Horregatik, egokitzen jotzen da lan-kontratudun langileek lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea behin-behineko esleipenaren figuraz, zeina zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

Horren arabera, betiere Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da I. eta II. Eranskinetan zerrendatzen diren lanpostuak betetzea, 2018/2019 ikasturterako.

Funtzionarioen kasuan, zerbitzu-eginkizunean beteko dira lanpostuak.

Lan-kontratudun langileen kasuan, behin-behineko esleipenaz beteko dira.

Bigarrena.- Eskakizunak, bazterketak eta uko egiteak.

- Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko hurrengo kidegoetako karrerako eta praktiketan dauden funtzionarioek, eskatutako lanpostuaren arabera:

- Maisu-maistren kidegoa.
- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoa.



- Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoa.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoa.

Aipatutako mailetako lan-kontratu finkoa duten irakasleek ere parte hartu ahal izango dute.

Era berean, bitarteko funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, baina lehentasuna izango dute karrerako nahiz praktiketako funtzionarioek, bai eta lan-kontratudun langile finkoek ere.

Bereziki, deialdi honetatik kanpo geratzen dira 2018/2019 ikasturterako IRALE programarako liberatuta egongo direnak.

2018/2019 ikasturterako, aurreko ikasturteetan esleitu zaien zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena luzatzeari uko egin diotenek ezingo dute uko horren xede den lanpostua eskuratu.

Zerbitzu-eginkizunaren behin betiko esleipena egin ondoren, ezingo zaio hari uko egin deialdi honen xede den ikasturtea amaitu arte.

Honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Eskaera aurkezten denean, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboko egoeran, edo postuaren erreserba dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun gabetzea izan ezik.

Era berean, zerbitzu berezietakoek eta borondatezko eszedentzia egoeran daudenek parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez zerbitzu aktibora itzuliz, beti ere egoera horretan egoteko gutxieneko epea bete baldin badute.

- Ebazpen hau argitaratu den egunera bitarte, 2018/2019 ikasturterako deialdi honetan deitutakoez bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenaz.
- Lanpostu-Zerrendan jasotako lanpostuei dagokienez, eskatzaileek dagokion Lanpostu-Zerrendak lanpostu bakoitzerako eskatzen dituzten baldintzak bete beharko dituzte. Deitutako lanpostuak I. Eranskinean jasota daude. (41/2009 Dekretua, otsailaren 17koa, EHAA 40. zk.; 2009/02/26).

Laguntzaile eta idazkari lanpostuetan, lanpostu bakoitzaren eskakizun bereziak bete beharko dira; II. Eranskinean zehaztuta daude.

Hirugarrena.- Eskabideak formalizatzea eta horiek aurkezteko epea.

Eskabideak eta aurkezteko lekua

Izangaiek beren eskabidea egin beharko dute Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratutako eredu ofizialean.

Eskabidea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidali beharko zaio.

Eskabideak ondoko lekuetan aurkeztu ahaliko dira:

- Hezkuntza Sailaren lurralde-ordezkaritzetan.
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan adierazitako erregistroetako edozeinetan

Eskabideen edo eskaeren kopurua

Parte-hartzaile bakoitzak ezingo ditu bere eskaeran bost (5) eskari baino gehiago sartu, eta lehentasun-irizpideei jarraituta ordenatuko ditu. Lanpostu bakoitza banan-banan eskatu beharko da, lanpostuaren edo funtzioen izena eta herria zehaztuta.



Epea

Eskaerak aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 28an bukatuko da, egun hori barne.

Laugarrena.- Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak ondokoarekin batera aurkeztu beharko dira:

- **Eskatutako betekizun espezifikoak:** Haiek egiaztatze dokumentazioa (originala edo kopia konpultsatua).

Administrazioaren eskura ez daudenak alegatu egin beharko dira, eta esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

- **Adierazitako merezimenduak:** Egiaztargi ofizialak (originalak edo kopia konpultsatua).

Administrazioaren eskura daudenak alegatu egin beharko dira, eta gainerakoak esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

Eskabidearekin batera aurkeztu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, ezta dokumentazioan jaso arren behar bezala egiaztatu ez direnak ere

- **Memoria:** Hautagaiek bete beharreko funtzioei eta lanari buruzko memoria bat aurkeztu beharko dute. IV. Eranskineko formatua erabili beharko da eta gehienez, 10 orrikoa izango da, alde bakarretik.

Bosgarrena.- Balorazio-baremoa.

Izangaiei merezimenduak, eta baita memoria ere, deialdi honen III. Eranskinean ezarritako balorazio-baremoaren arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitaratzeko datara bitarte gauzatu eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak soilik izango dira baloragarriak.

Guztira 20 puntu lor daitezke gehienez.

Guztira gutxienez 8 puntu lortzen ez dituzten pertsonak prozesutik kanpo geratuko dira.

Memorian 4 puntu gutxienez lortzen ez dituztenak prozesutik kanpo geratuko dira

Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratuz eta atalak baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz.

Balorazio-prozesuaren faseak:

1. Izangaiek haiek bete nahi dituzten lanpostuetan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatzea: Egiaztapen hau dagokion Lurralde Ordezkaritzak burutuko du.
2. Memorien balorazioa: Memoriak baloratzeko batzorde teknikoak eratuko dira, eta ondokoek osatuko dituzte: ebaluatu beharreko arlo edo esparruko dagozkien pertsonal teknikoak.

Batzordeak parte hartzaileak deitu ahal izango ditu memoriak defenditzeko, beharrezko iritziz gero.
3. Merezimenduen balorazioa: Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritzetako Berrikuntza eta Langileak Kudeatzeko zerbitzuek egingo dute balorazio hori.
4. Ondoren, fase ezberdinen balorazioak balorazio batzorde orokorraren esku jarriko dira.

**Seigarrena.- Balorazio Batzorde Orokorra.**

Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta dagokion epean eta moduan aurkeztu diren eskariak dagokion balorazio batzorde teknikoak eta bosgarren puntuan aipatutako gainerako zerbitzuek baloratuko dituzte, dagozkien ataletan.

Bosgarren puntuan aipatutako batzorde teknikoak osatzeaz gain, Balorazio Batzorde Orokorra osatuko da. Azken batzorde horren helburua ebazpen proposamena egitea da.

Hauek izango dira batzordeko kideak:

- Lehendakaria:
 - Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak:
 - Hezkuntza Berriztatzeko lurralde arduradunak, edo horiek eskuordetutako pertsonak.
 - Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat.
- Idazkaria:
 - Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, hitzarekin baina botorik gabe.

Era berean, sektorean ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat egon ahal izango da Balorazio Batzorde Orokorrean, hitzarekin baina botorik gabe.

Zazpigarrena.- Ebazpena.***Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.***

Balorazio-prozesua egin ondoren, balorazio batzorde orokorraren lehendakariak, Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dio deialdi honen ebazpenaren proposamena, azken honek deialdiaren Behin-behineko Ebazpena eman dezan. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangai bakoitzari emandako puntuazioak ere azalduko dira.

Behin-behineko Ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, Langileak Kudeatzeko zuzendariak jakitera emango du deialdiaren behin betiko ebazpena. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak azalduko dira, hautatutako eta baztertutako pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira. Hautagaiek lanpostuetan eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte —barnean hartuta balorazio-baremoan eskatutako gutxieneko puntuazioa—, deitutako lanpostuak ezingo dira hutsik geratu.

Aipatu ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Zortzigarrena.- Izendapena eta luzapenak.



Zerbitzu-eginkizunak ematea, betiere, lanpostuak lekualdatze-lehiaketaren bidez ez betetzearen baldintzapean dago.

Hautatutakoa zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.

Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie lanpostu horiek 2018/2019 ikasturtearen amaierara arte betetzeko.

Zerbitzu-eginkizunen esleipena edo behin-behineko esleipenak jaso dituztenek galdu egingo dituzte horiek, praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta ezin badute praktikak bete deialdi honen arabera esleitutako lanpostuan.

Praktiketako funtzionarioei dagokienez, zerbitzu-eginkizun bat emateko, karrerako funtzionario izan beharko dute 2018/2019 ikasturtean.

Lan-kontratudun langileen kasuan, lanpostu horiek betetzeko behin-behineko esleipenaren ebazpena emango da, 2018/2019 ikasturtearen amaierara arte.

Halaber, ordezkapenatarako hautagaien zerrendetan izena emanda dauden langileak edo bitarteko langileak aukeratuz gero, lanpostu horretan izendatuko dira 2018/2019 ikasturtearen amaierara arte.

Aldi hori igaro ondoren, Hezkuntza Administrazioak egindako ebaluazioa positiboa bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendapena luzatu ahal izango du hurrengo ikasturteetarako, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz eta lekualdatze-lehiaketen bidez betetzen ez badira.

Bederatzigarrena.- Ordainsariak.

Ebazpen honetako I. Eranskinean jasotako lanpostuetarako aukeratutako pertsonen zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenean betetako lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte.

Berritzeguneko laguntzaile-funtzioak —ebazpen honen II. Eranskinean jasota daude — egiteko aukeratutako pertsonen Berritzeguneko aholkulariei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte.

Beraien jatorrizko Kidegoari dagokion ordainsaria ordainduko zaie idazkari-dokumentalisten funtzioak esleitzen zaizkien pertsonen.

Hamargarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Eskatzaileek ematen dituzten datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko dira; fitxategi horren helburua deialdi hau kudeatzea izango da. Fitxategiaren arduraduna Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza izango da. Datuak atzitu, zuzendu, ezereztu eta aurka egin nahi izanez gero, bertara jo behar da: Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua, betiere, izaera pertsonaleko datuen babesari eta titulartasun publikoko izaera pertsonaleko datuen fitxategiei buruzko legediko aurreikuspenetara egokituko da (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta garapeneko araudia).

Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta Hezkuntza Saileko webgunean (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus), baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.

**Hamaikagarrena.- Ordezko araudi aplikagarria.**

Ebazpen honek prozedurari dagokionez arautu ez duen orotan, aplikagarria izango da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legea.

HELEGITEAK

Bide administratiboa bukatzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko maiatzaren 14an.

Jon Agirre Huerga
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



I. ERANSKINA

HEZKUNTZAN LANGUNTZEKO ZERBITZUETAKO (BERRITZEGUNEAK) LANPOSTU-ZERRENDAN JASOTAKO LANPOSTUAK

Berritzegune A01: Vitoria-Gasteiz

- Etapako aholkularia: Haur eta Lehen Hezkuntza.
- Etapako aholkularia: Bigarren Hezkuntza. Arlo zientifiko-teknologikoa.
- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Gizarteratzea.
- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Komunikazioaren ulergarritasuna eta garapena.

Berritzegune A02: Vitoria-Gasteiz

- Zuzendaria
- Etapako aholkularia: Bigarren Hezkuntza. Arlo zientifiko-teknologikoa

Berritzegune G01 Donostia

- Etapako aholkularia: Bigarren Hezkuntza Arlo sozio-linguistikoa.

Berritzegune G03: Eibar

- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Garapenaren nahaste orokorrak.
- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Ikasteko gaitasunen garapena

Berritzegune G04: Ordizia

- Zuzendaria.
- Etapako aholkularia: Bigarren hezkuntza -Arlo sozio-linguistikoa.
- Programako Aholkularia: Hizkuntza normalkuntza.

Berritzegune B01: Bilbao

- Etapako aholkularia: Lehen Hezkuntza
- Etapako aholkularia: Lehen Hezkuntza
- Etapako aholkularia: Bigarren hezkuntza -Arlo sozio-linguistikoa
- Etapako aholkularia: Bigarren hezkuntza -Arlo sozio-linguistikoa
- Etapako aholkularia: Bigarren Hezkuntza. Arlo zientifiko-teknologikoa
- Etapako aholkularia: Bigarren Hezkuntza. Arlo zientifiko-teknologikoa
- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Gizarteratzea.
- Programako Aholkularia: Hizkuntza normalkuntza

Berritzegune B02: Bilbao

- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Komunikazioaren ulergarritasuna eta garapena

Berritzegune B03: Sestao

- Etapako aholkularia: Lehen Hezkuntza
- Etapako aholkularia: Lehen Hezkuntza
- Etapako aholkularia: Bigarren Hezkuntza. Arlo zientifiko-teknologikoa
- Etapako aholkularia: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak(IKT)
- Programako Aholkularia: Hizkuntza normalkuntza

**Berritzegune B04: Barakaldo**

- Etapako aholkularia: Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

Berritzegune B05: Ortuella

- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Komunikazioaren ulergarritasuna eta garapena

Berritzegune B06: Basauri-Galdakao

- Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularia: Ikasteko gaitasunen garapena

Berritzegune B07: Getxo

- Etapako aholkularia: Bigarren Hezkuntza. Arlo zientifiko-teknologikoa
- Etapako aholkularia: Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

Berritzegune B09: Durango

- Etapako aholkularia: Lehen Hezkuntza

Berritzegune Nagusia:

- Zeren arduraduna: Eskola inklusiboa (Aniztasuna eta generoa).
- Arloko aholkularia: Teknologia
- Zeren arduraduna: Hizkuntzan Tratamendu Integratua.
- Zeren arduraduna: Kalitatea
- Zeren arduraduna: Elkarbizitza



II. ERANSKINA

IDAZKARI DOKUMENTALISTA LANPOSTUAK

Berritzegune A01: Vitoria-Gasteiz

Idazkari dokumentalista
A/B taldekoa
2. HE beteta

Berritzegune G01: Donostia

Idazkari dokumentalista
A/B taldekoa
2. HE beteta

Berritzegune B04: Barakaldo

Idazkari dokumentalista
A/B taldekoa
2. HE beteta

Berritzegune B06: Basauri- Galdakao

Idazkari dokumentalista
A/B taldekoa
2. HE beteta

Berritzegune B07: Getxo

Idazkari dokumentalista
A/B taldekoa
2. HE beteta

BERRITZEGUNE NAGUSIA. LAGUNTZAILEEN LANPOSTUAK

LAGUNTZAILEA: BIZIKASI programaren diseinua eta ezarketa

A/B taldea
2. HE beteta
Titulazioa: Doktorea, lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria edo Graduako titulua, edo beste titulu baliokide batzuk, izatea edo titulu horiek emateko tasak ordaindu izana
Esperientzia: Arloko proiektuetan 3 urte

LAGUNTZAILEA Eskola antolamendua

A/B taldea
2. HE beteta
Titulación: Doktorea, lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria edo Graduako titulua, edo beste titulu baliokide batzuk, izatea edo titulu horiek emateko tasak ordaindu izana
Esperientzia: Arloko proiektuetan 3 urte

**LAGUNTZAILEA Eskola antolamendua**

A/B taldea

2. HE beteta

Titulación: Doktorea, lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria edo Graduako titulua, edo beste titulu baliokide batzuk, izatea edo titulu horiek emateko tasak ordaindu izana

Esperientzia: Arloko proiektuetan 3 urte

LAGUNTZAILEA Hezkuntza premia bereziak. Gizarteratzea

A/B taldea

2. HE beteta

Titulación: Psikologia, pedagogia edo psikopedagogia lizentziatura edo Graduako titulua, edo beste titulu baliokide batzuk, izatea edo titulu horiek emateko tasak ordaindu izana

Esperientzia: Arloko proiektuetan 3 urte

LAGUNTZAILEA : Eskola inklusiboa, aniztasuna eta generoa

Grupo A/B

2. HE beteta

Titulación: Doktorea, lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria edo Graduako titulua, edo beste titulu baliokide batzuk, izatea edo titulu horiek emateko tasak ordaindu izana

Esperientzia: Arloko proiektuetan 3 urte

LAGUNTZAILEA. Zientzietan

A taldea

2. HE beteta

Titulación: Doktorea, lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria edo Graduako titulua, edo beste titulu baliokide batzuk, izatea edo titulu horiek emateko tasak ordaindu izana

Esperientzia: Arloko proiektuetan 3 urte

LAGUNTZAILEA. Lehen Hezkuntza

B taldea

2. HE beteta



III. ERANSKINA

BERRITZEGUNEETAKO LANPOSTU-ZERRENDAKO HAINBAT LANPOSTU ETA
LAGUNTZAILE ZEIN IDAZKARI FUNTZIOAK BETETZEKO BAREMOA

GUZTIRA, GEHIENEZ ERE: 20 puntu.

1.- *Esperientzia: 6 puntu, gehienez ere.*

- Hezkuntza Saileko Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetan (Berritzegune, Ingurugela, ISEI-IVEI...) lan-esperientzia izateagatik. **2 puntu, gehienez ere.**

Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,10 puntu.

- Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeetan esperientzia izateagatik. **puntu 2, gehienez ere**

EAEko, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

Administrazioaren baimena duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatuetan eta aurreko a) puntuan adierazitakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu

- Hezkuntza Sailean, irakaskuntzakoak ez diren eta eskatutako lanpostuarekin zerikusia duten lan-esperientzia izateagatik. **Puntu 1, gehienez ere**

Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,10 puntu

- Eskatutako lanpostuaren alorrarekin zerikusia duten proiektuak dinamizatzeagatik eta koordinatzeagatik: **puntu 1, gehienez ere.**

Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,05 puntu

2.- *Jasotako prestakuntza: puntu 1, gehienez ere.*

Erakunde ofizialek emandako ziurtagiriak eta Hezkuntza Sailak homologatuak (emandako orduen kopurua adieraziko dutena) baloratuko dira, eskatzen diren lanpostuarekin edo funtzioekin zerikusia baldin badute.

- 10 ordutik 30 ordutara arteko prestakuntza jardunaldi bakoitzeko: 0.20 puntu
- 31 ordutik 50 ordutara arteko prestakuntza jardunaldi bakoitzeko: 0.40 puntu
- 51 ordutik gorako prestakuntza jardunaldi bakoitzeko: 0.60 puntu

3.- *Hizkuntzak: puntu 1, gehienez ere.*

- Atzerriko hizkuntzen ezagutza-maila aintzat hartuko da, B2 (0,5 puntu), C1 (0,75 puntu) edo C2 (puntu 1) ziurtagiriaren bidez.

Hurrengo titulu edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatuko da:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko edo bestelako Erkidegoetako Hizkuntza Eskolek emandako tituluak edo ziurtagiriak.
- b) maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskinean zehaztutako tituluak edo ziurtagiriak (EHAA, 2012ko maiatzaren 29)

**4.- Hitzaldiak eta ikastaroak emateagatik: puntu 1, gehienez ere.**

- Kontuan hartuko dira ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatuak, zerikusia dutenak eskatutako lanpostu edo funtzioekin. Dagokionean, ziurtagiriekin berariaz erakutsi behar dute emandako ordu-kopurua.
- Ziurtatutako 10 ikastaro-orduko: 0,20 puntu.
- Hitzaldi bakoitzeko: 0,20 puntu.

5.- Argitalpenak: puntu 1, gehienez ere.

Lanpostuaren edukiari lotutako argitalpenak.

Autoretzaren argitalpenak, 0.5 puntu

Koautoretzaren argitalpenak edo autoreen taldearen argitalpenak, 0.25 puntu

Azaroaren 2ko 2984/1972 dekretuak, abenduaren 12ko 2063/2008 errege dekretuaren bidez aldatuak, xedatutakoaren arabera ISBN, edo ISSN edo ISMN, derrigorrean adierazi behar duten arren ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, ezta autoreak eta editoreak pertsona bera diren horiek

6.- Memoria: 8 puntu, gehienez ere.

Hautagaiek gehienez hamar orriko memoria bat idatzi beharko dute, alde bakarretik, bete beharreko funtzioei eta lanari buruz.

Gutxienez 4 puntu lortu beharko dira memorian. Memorian 4 puntu horiek gutxienez lortzen ez dituztenak prozesutik kanpo geratuko dira

Memoriaren edukia IV. Eranskinean dago zehaztuta.

Memoria baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak:

1. Alderdi formalak.
2. Lanpostuaren egitekoekiko egokitzapena eta edukiaren garapen orokorra.
3. Erabilitako informazio-iturrien aniztasuna.
4. Erabilitako oinarritzeko kontzeptuetan argitasuna eta zehaztasuna.

7.- Antzinatasuna irakasle gisa: 2 puntu, gehienez ere.

- a) EAEko, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen fotokopia konpultsatuz, edo zerbitzu-orriaz. Europar Batasuneko estatu kideen ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak frogatzeko beharrezkoa izango da, gainera, zentroa publikoa dela eta emandako irakasgaiak arautuak direla ziurtatuko duen hezkuntza-administrazioaren dokumentu bat —zinpeko itzulpenaz— aurkeztea.

- b) Administrazioaren baimena duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatuetan eta aurreko a) puntuan adierazitakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da zentroaren zuzendaritzak emandako ziurtagiri baten bidez, non zerbitzuen iraupena jasoko den, eta ikuskaritzaren oniritziak, edo, bestela, kontratuaren fotokopia konpultsatuz eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiriak, non zentroaren izena eta altako aldiak agertuko diren.



IV. ERANSKINA

ESKATUTAKO LANPOSTUAREN FUNTZIO ETA LANARI BURUZKO MEMORIA (RPTko lanpostuak eta laguntzaileak)**(GEHIENEZ, 10 ORRI ALDE BATETIK)****EGILEA:****MEMORIA ZER LANPOSTURI BURUZKOA DEN:****SARRERA.**

- Aurrekariak eta arloko esperientzia.

AHOLKULARITZAREN KONTZEPTUA

- Marko teorikoa.
- Garatzeko funtzioak
- Aholkularitza lanerako aportazioak eta balorazioa
-

LANPOSTUAREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN JARDUKETA-LERROAK.

- Justifikazioa
- Diagnostika
- Helbururak
- Lehentasunezko jarduerak
- Jarraipena: ebaluatzeko indikadoreak, tresnak

AIPAMEN TEORIKOAK. BIBLIOGRAFIA.**ESKATUTAKO LANPOSTUAREN FUNTZIO ETA LANARI BURUZKO MEMORIA (Idazkari dokumentalistak)****(GEHIENEZ, 10 ORRI ALDE BATETIK)****EGILEA:****MEMORIA ZER LANPOSTURI BURUZKOA DEN:****SARRERA.**

- Aurrekariak eta arloko esperientzia.

IDAZKARITZAREN KONTZEPTUA

- Marko teorikoa.
- Garatzeko funtzioak
- Idazkaritzarako lanerako aportazioak eta balorazioa
-

IDAZKARI-DOKUMENTALISTAREN JARDUERAK BERRIZTEGUNEKO TESTUINGURUAN KOKATU.

- Diagnostika
- Helbururak
- Lehentasunezko jarduerak

AIPAMEN TEORIKOAK. BIBLIOGRAFIA.